



**gourmet**



**kultura**


**musika**



**zinema**



**sport**



**market**

**16-19**  
apirila | april  
abril | avril  
**2025**



[bilbao.eus/basquefest](http://bilbao.eus/basquefest)

**bilbao**   
**basque**  
**FEST**



16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST



## Gozatu euskal kulturaz bost zentzumenekin Bilbao basque FESTen

Aste Santu honetan, ospatu euskal kulturaren aberastasun oparoa **Bilbao basque FEST jaialdian!** Apirilaren 16tik 19ra bitartean, hiriak jarduera ugari eskainiko ditu, gehienak doakoak, publiko guztiarentzat: kontzertuak, antzerkia, zinema, umorezko bakarrizketak, dantza tradizionalak, herri kirolak...

**Bilbao basque FESTek** bere ohiko sei gaien formatu arrakastatsuari eutsi dio: **Gourmet, Kultura, Musika, Market, Zinema eta Sport.** Eta bere programaziorik klasikoena mantendu du: **itsadarreko pasealdi originalak Begotxu eta Maitanerekin, «anfitrioien» ibilbide historikoak, familia-jardueren aukera dibertigarriak, kalejirak, dantza plazan eta DJen saioak. Herri Kirolek,** Euskal Herriaren nortasunaren bereizgarri izanik, erakustaldi eta tailer ikusgarriak eskaintzen jarraituko dute, eta lehiaketa ofizialak ere egingo dira, Bizkaiko Orga Joko Txapelketa, adibidez.

**Bilbao basque FESTen** beste helburuetako bat da euskal gastronomia aparta eta bertako helmuga turistikoak sustatzea. **Txoko Gourmetek, Areatzan, bere dastaketa eta tailer arrakastatsuen atea irekiko** ditu hainbat eskualderen eskutik. Horiek Km0 produktuen eskaintza goxoa hurbilduko diote publikoari.

2024ko edizioan euskarri berri bat estreinatu zen egitaraua zabaltzeko, jasangarriagoa eta gaur egungo joera digitaletara hobeto egokitua: **QR kodea inprimatuta duen txapa bat,** ekitaldiari buruzko informazio guztia eta jaialdiaren egunez eguneko agenda zuzenean eskuratu ahal izateko.


Jardueraz betetako agenda trinkoa duzu zain, emozioz, gastronomia bikainaz eta dibertsioz beteriko lau egunetan zehar. Bizi ezazu **Bilbao basque FEST** esperientzia!



16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao   
basque  
FEST

musika



**Bilbao basque FEST 2025** jaialdiaren kartelak musikako ia formatu eta estilo guztiak hartzen ditu barne. Emakumeen ahotsetan jartzen du fokua, besteak beste, Clara Corral, Nerea Arrieta eta Itsaso Gutierrezen emanaldiekin. Jazza, folka, rocka, soinu tradizional eta garaikideak... Jaialdiak Korrontzi eta OrekaTx bezalako klasikoen alde apustu egin du, baina proposamen originalak ere igoko ditu eszenatokira, hala nola Alex Lopez buru duen Sensei Music Ensemble edo Amaia Barrenak eta Txitxok Berreginen Museoa emango duten kontzertu poetikoa.

 kafe  
antzokia  
[www.kafeantzokia.eus](http://www.kafeantzokia.eus)

**Kafe Antzokia Basque FEST Rock City** zikloaren egoitza izango da berriz ere; euskal talde onenek emango dituzte emanaldiak. Hiriko beste txoko batzuetara ere iritsiko da musika ona, Musika ona hiriko beste txoko batzuetara ere iritsiko da, Areatzako kioskoko gaueko berbenaren bidez edo Ledesma eta Diputazioko kalejira alaien bidez.



16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

musika



# Euskal folklorea eta soinu garaikideak Azkuna Zentroan

Sensei Music Ensemblek inauguratuko du jaialdia, Alex López buru duen proiektuak, jazz, popa eta folka modu esperimental eta oso emozionalean uztartzen dituenak. Abesbatza-ikuskizun bat izango da eta, bertan, baxu- eta kontrabaxu-jotzaile beteteranoa musikari talde batekin arituko da (20 urte baino gehiagoko ibilbidea dute elkarrekin).

Hurrengo egunean, Udal Txistulari Bandak «Dizdira» eskainiko du, musika eta dantza tradizionala uztartzen dituen emanaldia, melodia herrikoiak eta Kepa Junkera, Aitor Furundarena edo Xabier Zabalaren abesti berriagoak uztartuz.

Taldearekin batera arituko dira Garazi Navas akordeoilaria, Oinkari taldeko dantzariak eta Bilboko Gaztedi dantza-taldeko lau erraldoi ere.

Ostiralean, apirilak 18, Iñaki Plaza Band igoko da oholtzara, eta hark musikaren tradizioa eta berrikuntza uztartuko ditu trikitixaren, txalapartaren eta albokaren soinuen bidez, soinu-esperientzia paregabea sortuz. Iñaki Palacios txistulari gasteiztarrak emango dio amaiera emanaldi-zikloari, akorde elektronikoak eta euskal folkloreak soinu ezagunak batuko dituen kontzertu batekin.

## Sensei Music Ensemble

### KOKAPENA:

Azkuna Zentroa

### DATAK ETA ORDUTEGIAK:

Apirilak 16, asteazkena, 19:00etan



## Bilboko Udal Txistulari Banda

### KOKAPENA:

Azkuna Zentroa

### DATAK ETA ORDUTEGIAK:

Apirilak 17, osteguna, 18:30ean




## Iñaki Plaza Band

### KOKAPENA:

Azkuna Zentroa

### DATAK ETA ORDUTEGIAK:

Apirilak 18, ostirala, 19:00etan



## Iñaki Palacios

### KOKAPENA:

Azkuna Zentroa

### DATAK ETA ORDUTEGIAK:

Apirilak 19, larunbata, 19:00etan



16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

musika



## Kontzertu poetikoa Berreginen Museoa

Amaia Barrenak eta Txitxok «Roma es inevitable» lanaren abestiak eta poemak uztartuko dituen kontzertu bat eskainiko dute ostegunean, apirilak 17, Berreginen Museoa. Bi artisten arteko konplizitateak, gitarraren bat-bateko soinua gehituta, esperientzia originala eskainiko diote publikoari. Emanaldian gaztelaniaz abesten duten kantautoreen abesti ezagunen bertsioak entzungo dira.

**KOKAPENA:** Berreginen Museoa

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 17, osteguna, 12:00etan

## Korrontzi, OrekaTx eta gaueko dantzaldia Areatzako Kioskoan

Agus Barandiaran buru duen Korrontzi euskal folk musika-talde ezagunak emango die hasiera emanaldiei, ostegunean, Areatzako Kioskoan. Trikitixaren eta dantza tradizionalen arteko konbinazioa da taldeak eskainiko dituen kontzertuen bereizgarri nagusia. Hurrengo egunean, OrekaTx boskoteak «Koklea» eskainiko du, txalaparta material organikoekin (egurra, harria, banbua eta, batzuetan, izotza) uztartzen dituen ikuskizuna. Gaueko dantzaldia OrekaTx alaituko du, Oxabi, Garilak 26 eta Urrats taldeetako kideek osaturiko zortziko taldea.

**KOKAPENA:**  
Areatzako Kioskoa

**Osteguna**  
Apirilak 17  
20:30ean

**Korrontzi**



**Ostirala**  
Apirilak 18  
20:30ean

**OrekaTX**



**Larunbata**  
Apirilak 19  
20:30ean


**Oreka**  
(Gaueko  
dantzaldia)



16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

musika



## Kalejirarik animatuena Bilboko bihotzean

Sama Siku fanfarre bilbotarraren (lau hamarkada baino gehiagoko historia duen banda) festa-soinu indartsuek Diputazio eta Ledesma kaleak beteko dituzte larunbatean, hilak 19, 13:00etatik aurrera. Pieza herrikoiek eta gaurko abesti alaiak hirigunea alaituko dute bazkalorduan.



### Fanfarre Sama Siku

**KOKAPENA:** Diputazio kalea / Ledesma kalea

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 19, larunbata, 13:00etan

## Emakumeen euskal rocka Azkena Aretoa

**KOKAPENA:** Azkena Aretoa



**Ostirala**  
Apirilak 18  
21:00etan

Kontzertua

**Itsaso Gutiérrez**  
**Retolaza (ON proiektua)**

Gaeon, jaialdiak Azkena Aretora zabalduko du bere kontzertu-propo- samena, eta bi euskal rock artista emakume izango dira bertan.

Itsaso Gutiérrez Retolaza buru duen ON musika-proiektuaren oinarri sozialeko abestiak izango dira protagonista ostiral gaean, Iñigo Lurgain baxuan eta Maialen Arana baterian direla. Hurrengo egunean, Clara Corral bilbotarra igoko da eszenatokira bere hitz introspektiboak partekatzerako. Clararen hitzek autoezagutza aztertzeke eta emozio unibertsekin (maitasuna, tristura eta itxaropena, adibidez) identifikatzeko aukera emango diote publikoari.



**Larunbata**  
Apirilak 19  
21:00etan

Kontzertua

**Clara Corral**

16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

musika



## Euskal banda onenak Basque Fest Rock Cityn

Rock and roll gau zirrargarrienak Kafe Antzokian ospatuko dira. Bilbao basque FEST Rock Cityk gaur egungo euskal panoramaren onena biltzen duen kartela eskainiko du aurten. Arnau & The Honky Tonk Losers, Moonshine Wagon, Micky & The Buzz, Solomillo Wellington, The Inciters, The Cherry Boppers, Nat Simons eta Las Furias taldeek egunero eskainiko dituzte kontzertuak, 22:00etan.

**KOKAPENA:** Kafe Antzokia

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:**

**Apirilak 16, asteazkena, 22:00etan**

**Arnau & The Honky Tonk Losers/ Moonshine Wagon**

**Apirilak 17, osteguna, 22:00etan**

**Micky & The Buzz/ Solomillo Wellington**

**Apirilak 18, ostirala, 22:00etan**

**The Inciters / The Cherry Boppers**

**Apirilak 19, larunbata, 22:00etan**

**Nat Simons / Las Furias**

kafe  
antzokia  
www.kafeantzokia.eus



16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

musika



## Itxaso y Luismi Segurado, Basque Jazz-eko protagonistak

Itxaso abeslari bizkaitarrak, bere ahotsa egungo jazzaren panoramako erakargarrietako bat duena, eta Luismi Segurado piano-jotzaileak bikote bikaina osatuko dute, eta beren abesti iradokitzaileak Jazzon aretoko publikoaren aurrean zabalduko dituzte hilaren 19an, larunbatean. Instrumentuen soiltasuna bandera gisa hartuta, ibilbide luzeko musikari hauek beren brasildar eta pop eraginak generoaren sustrai puruenekin galbahetzen dituzte.

### KOKAPENA:

Jazzon Aretoa

### DATAK ETA ORDUTEGIAK:

Apirilak 19, larunbata, 20:00etan

### PREZIOA:

5 €



## Dj saioak Martzanan: “Kaia on set”

Martzanako kalean eta kaian ezin ziren falta DJen erritmo magnetikoak. Hiru orduko iraupena izango duten arratsaldeko eta goizeko saioak izango dira, eta ondo zaindutako soinu- eta argiztapen-sistemak izango dituzte.

### KOKAPENA:

Martzana kalea eta Martzanako kaia





16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

kultura



**Bilbao basque FEST**ek letra larriz ezagutarazten eta balioesten du euskal kultura. Esamoldeak, dantzak eta ohiturak argi eta garbi islatzen dira ikuskizun bakoitzean, herri baten esentzia deskribatuz. Bilboko historia modu atsegin eta originalean ezagutu nahi dutenek bisita antzetzuekin bat egiteko aukera izango dute, gida oso berezi batzuekin: «**Bilboko Anfitrioiak**». **Beti bezala, hiribilduaren historia berrikusiko dute, Zazpikaleetako eta Areatzako gune nagusietatik barrena.**

Umoreak ere bere tarteak izango du jaialdian: **Bilborockeko bakarrizketak Gurutze Beitia, Mitxel Santamarina eta Salah El Yaakoubiren eskutik**, itsasadarreko pasealdiak (itsasontziz) Begotxu eta Maitanerekin... Publiko guztiarentzako programa dibertigarria izango da; algarak ziurtatuta daude.

Haur eta gaztetxoek ere parte hartu ahal izango dute, jaialdiaz ahalik eta gehien gozatzeko diseinatuta dauden jarduerak entretengarrietan: **antzerkia, zirkua eta ikuskizunak Txaloka, Doble Bill edo Trotamundos euskal konpainien eskutik.**

Bilbao basque FESTen eskaintza kulturala hiriko areto eta museoetan egun horietarako programatutako erakusketa artistikoekin osatzen da. Bertan izango dira, adibidez, Juan Carlos Eguillor artista bilbotarrari eskainitakoa (Rekalde Areatoan), «Laberinto» edo Arte Sakratuaren Museoko erakusketa iraunkor ikusgarria. Hiribilduak eskaintzen duen beste proposamen interesgarri bat hiriko horma-irudi artistikoen ibilbidea da, hiriko hainbat puntu zipriztintzen dituen.



16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

kultura



## Itsasadarreko pasealdiak Begotxu eta Maitanerekin

Ibilaldi panoramikoa Bilboats itsasontzian, itsasadarrean barrena... baina ez besteak bezalakoa. Begotxu eta Maitane barregarriek oso gala berezia ospatuko dute itsasontzian bertan: Bilbao Basque Fest Awards 2025, Bilbo mundu osoan erreferentziazko helmuga turistikoa bihurtu duten pertsona ospetsuak saritzeko ekitaldia.

Nor izango dira sarituak? Nola lortu dute hiria puntu gorenera eramatea?



### “Bilbao Basque Fest Awards 2025”

**KOKAPENA:** Pio Baroja pantalana

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 17 osteguna, 18 ostirala eta 19 larunbata.  
11:30, 12:30, 13:30. 16:30, 17:30, 18:30

Tiketak [www.bilboats.com](http://www.bilboats.com) webgunean. Prezioa: 3 €

## Hiriko ibilbide antzeztuak “Bilboko Anfitrionien” eskutik



Hiriko historia ikasteko modurik dibertigarrienetako bat da. «Bilboko Anfitrioniak» egunero ikusi ahal izango dugun publiko guztiarentzako jarduera bat da. Haren bidez modu ludikoan ezagutu ahal izango ditugu Bilboko sustraiak, Zazpikaleetan eta Areatzan barrena egingo duten ibilbide gidatu harrigarri eta original baten bitartez. Istorio klasiko liluragarrien eta hiriari buruzko xehetasun ez oso ezagunak.

**KOKAPENA:** Irteera San Antón elizatik (Zazpikaleak)

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 17 osteguna, 18 ostirala eta 19 larunbata.  
12:00etatik 14:00etara

**Ibilbidea:** San Anton eliza, Konsuletxeko plaza, Erriberako merkatua, Erriberako zubiaren sarrera, Arategizar kalea, Arana jauregia, Done Jakue katedrala, Dorre kalea, Posta kalea, Plaza Barria, Areatzako kaia, Zingira kalea, Areatzako kaia, Arriaga Antzokiaren aurrealdea, Posta kalea, Bidebarrieta kalea, Txakur kalea, Andra Maria kalea, «La Bolsa» eraikina eta «Triangu».

16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

kultura



## Bakarrizketa onenak Bilborocken: Humor and Basque

Bilborock umorerik bikainenaren anfitrioiak izango da berriro Bilbao basque FESTen. «Marica de Gernika» da Mitxel Santamarinaren proposamena, hainbat telebista-saiotan eta Cabaret Chihuahuako zarzueletan parte hartu duen aktorea. Gurutze Beitia aktore ezaguna ere oholtzara igoko da «Yo y mis circunstancias» antzezlanarekin. Antzezlan horretan, zahartzearekin lotutako aldaketetatik bizirik irauteko gida praktiko bat aurkeztuko du aktoreak. Larunbatean, Salah El Yaakoubi marokoar jatorriko artistaren txanda izango da: «El morologuista. Una nueva perspectiva» antzezlan eskainiko du. Ikuskizun horiek guztiak 16 urtetik gorakoentzat dira.

**KOKAPENA:** Bilborock

### “Marica de Gernika” Mitxel Santamarina

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 17, osteguna, 20:00etan

### “Yo y mis circunstancias” Gurutze Beitia

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 18, ostirala, 20:00etan

### “El morologuista. Una nueva perspectiva”, Salah El Yaakoubi

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 19, larunbata, 20:00etan



16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

kultura



## Ensanche eraikina, familien topagunea

Antzerkia, musika, jolasak, dantzak, zirkuko jarduerak eta dinamika parte-hartzaileak izango ditugu Bilbao basque FESTeko familientzako proposamenen artean. «Munduko postrerik gozoena» prestatzea, kutxa misteriotsu batek zer gordetzen duen jakitea eta kabaret bitxi bat; horiek izango dira Ensanche eraikinean garatuko diren hiru istorioen abiapuntuak.

**KOKAPENA:** Ensanche eraikina

### “Bualá”, Compañía Txaloka

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 17, osteguna, 18:00etan



### “Historias de un baúl”, Compañía Trotamundos

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 18, ostirala, 18:00etan



### “Two Much Circus”, Compañía Doble Bill

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 19, larunbata, 18:00etan



## Dantza Plazan Gas plazan

Gaztedi, Lorratz eta Goi-herri taldeek euskal dantza alaietz beteko dute Gas plaza ostegunetik larunbatera. Herritar guztientzako gonbidapena da, adina edo dantza-maila dena dela, festa herriko dibertigarriaz gozatzeko.

**KOKAPENA:** Gas plaza

### Lorratz

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 17, osteguna, 19:00etan

### Gaztedi

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 18, ostirala, 19:00etan

### Goi-Herri


**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 19, larunbata, 19:00etan



16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao   
basque  
FEST

sport



Bilbao basque FESTen ezinbesteko bat euskal kirol tradizionalak dira, Herri Kirolak. Areatza plaza handi bat bihurtuko da, mundu osoan ezagunak diren proba tradizional hauetaz zuzenean gozatu ahal izateko. Estantpa ikonikoak oparituko dizkigute: ingude-, fardo- eta harri-jasotzeak, trontza, sokatira... Bizkaiko Orga Joko (orga) Txapelketa Ofiziala ere ospatuko da, eta hainbat tailer egingo dira, 8 urtetik gorakoentzat. Era berean, Nerea Egurrola kirolaria, gaur egun 25 kiloko txinga garraioan errekorra duena, 50 kiloko marka hausten saiatuko da.

## Ezinbesteko bat Bilbao basque FESTen: herri-kirol tradizionalak

Herri-kirolak euskal esentziaren zati banaezina dira. Leku bakar batean herri-kirol ugari bizitzeko eta praktikatzeko aukera paregabea da Bilbao basque FEST. Ingude- eta harri-jasotzeak, harri-zulatzailak, sokatira, trontza... Ostegunean abiaraziko dira proba horietako asko, gizonezko eta emakumezkoen


Bizkaiko Orga Joko Txapelketa Ofizialarekin. Areatzako kaian egingo dira proba fisiko horiek guztiak, oinezkoak eta zaleak erakarriko dituztenak. Gainera, hainbat tailer egingo dira, 8 urtetik gorakoentzat.



16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

sport



**KOKAPENA:** Areatzako kaia

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:**

**Apirilak 17, osteguna, 12:30ean**

Bizkaiko Txapelketa Ofiziala: Orga Jokoa.  
Harri-jasotzaileen erakustaldia.

**Apirilak 17, osteguna, 17:30ean**

Aizkora-desafioa Altuerako ebaketa 5 metro + desafioa lurrian Harri-zulatzailen desafioa taldeka  
Publikoak barrena probatzeko eta esperientzia aizkolariekin partekatzeko aukera paregabea.

**Apirilak 18, ostirala, 12:30ean**

Lehen mailako aizkolarien desafioa: ebaketa mota desberdinak, lan luzea, ebaketa bertikalean, kolpeka eta abiadurakoa.

Iparraldeko jokoaren desafioa: lasto-altxatzea eta lasto-jaurtiketa.

**Apirilak 18, ostirala, 17:30ean**

Trontza-desafio mistoa

Goma gaineko sokatira: erakustaldia munduko txapelidunen eskutik. Sokatira-desafioa publikoaren eta tiratzaileen artean.

Publikoak trontza probatzeko aukera ezin hobea.

**Apirilak 19, larunbata, 12:30ean**

Crossfit eta herri-kirolen arteko desafioa: talde mistoen arteko proba. Crossfiteko eta herri-kiroletako hainbat diziplina egin beharko dituzte, erlojupean.

**Apirilak 19, larunbata, 17:30ean**

Pentatloi desafioa: Bizkaiko kirolaririk onenak izango ditugu bost proba hauetan, konbinatuta eta erlojupean: harri-jasotzea, gizon-proba, aizkora, txinga-garraioa eta lasterketa.

Harri-jasotzaileen erakustaldia, harri handiekin.

## Herri-kirolen haurrentzako tailerrak (8 urtetik gorakoentzat)

**KOKAPENA:** Areatzako kaia

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Martxoak 28 osteguna, martxoak 29 ostirala eta martxoak 30 larunbata.  
11:30ean eta 16:30ean.

## Euskal pilota tailerrak Esperantzako frontoian

Tailerretan 50 pertsonarentzako lekua egongo da 45 minuturo, eta publiko guztiaren dibertsioa bermatuko dute. Saiotan, parte-hartzaileek saskitxoak egingo dituzte kartoi birziklagarriarekin, baita EKO pilotak ere, kirol tradizional honen museo txiki bat bisitatuko dute (haren modalitate guztiak eta historia ezagutzeko), emakumezko profesionalen eta zesta-puntakoen partida laburrak ikusi ahal izango dituzte, eta esku-pilota partidak jokatu ahal izango dituzte, sari gisa «txapela» bat izango dutelarik.

**KOKAPENA:** Areatzako kaia

**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 17 osteguna, apirilak 18 ostirala eta apirilak 19 larunbata.  
12:00etan, 13:00etan eta 17:00etan.

16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

gourmet

2€  
DASTAKETA  
EDO TAILERRA  
(eskudiruzko ordainketa)  
Dohaintza  
AMIARTE elkarteari

Dastatu ere egiten da euskal kultura. **Gourmet Txokoak**, Bilboko **Areatzan**, Euskadiko hainbat eskualde turistiko bilduko ditu, bakoitza bere produktu onenekin. Eskualde horien eskaintza eta gastronomia zapoetsua ezagutzeko leku paregabea izango da. Ez galdu **dastaketa espresak**: gildak, ore masarekin egindako ogia, gazta, txorizoa, txakolina, txokolatea... Eta parte hartu **sukaldaritza-tailerretan**; horietan, hainbat tostada prestatzen ikasiko duzu —hegaluzearenak antxoa marinatuarekin, edo Latxa gazta urdinarekin—, baita antxoaz betetako kalabazina ere, lurraldeko beste hainbat gozamen tipiko batzuen artean. Bi jarduerak 2 euroko prezioa izango dute eta bildutako diru guztia Amiarterentzat izango da, egoera zailtan dauden artista, profesional eta pertsonen arteko topaketa eta lankidetzak sustatzen duen Diziplinarteko Sorkuntza Artistikoko tailerra.

**KOKAPENA:** Txoko Gourmet **DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 17 osteguna, 18 ostirala eta 19 larunbata  
**IZEN-EMATEAK:** Gourmet Txokoko karpan (kostua: 2 euroko dohaintza)

Dastaketa espresak

osteguna 17		ostirala 18		larunbata 19	
12:00 1. aretoa	Idiazabal lurraldeko gaztak GOIERRI	12:00 1. aretoa	Urigoitiko txorizoa GORBEIALDEA	12:00 1. aretoa	Oli Olive/Oliba-olio dastaketa ARABAKO ERRIOXA
12:10 2. aretoa	Ezpeletako piperra IPARRALDEA	12:10 2. aretoa	Ardi-gazta IPARRALDEA	12:10 2. aretoa	Muro upategia/Ardo-dastaketa ARABAKO ERRIOXA
13:00 1. aretoa	Iza okindegia GORBEIALDEA	13:00 1. aretoa	Ezpeletako piperra IPARRALDEA	13:00 1. aretoa	Cervus saltsak GORBEIALDEA
13:10 2. aretoa	Moraita gaztandegia ARABAKO ERRIOXA	13:10 2. aretoa	Lezama txakolina URIBE	13:10 2. aretoa	Muro Upategia/Ardo-dastaketa ARABAKO ERRIOXA
14:00 1. aretoa	Ardi-gazta IPARRALDE	14:00 1. aretoa	Araico/Ardo-dastaketa ARABAKO ERRIOXA	14:00 1. aretoa	Oli Olive/Oliba-olio dastaketa ARABAKO ERRIOXA
14:10 2. aretoa	Txakolingunea URIBE	14:10 2. aretoa	Gilda-dastaketa URIBE	14:10 2. aretoa	-----
17:00 1. aretoa	Urigoitiko txorizoa GORBEIALDE	17:00 1. aretoa	Loraldi desberdinetako eztien dastaketa TOLOSALDEA	17:00 1. aretoa	Rafa Gorrotxategi Txokolate-dastaketa TOLOSALDEA
17:10 2. aretoa	Ruiz de Viñaspre/Ardo-dastaketa ARABAKO ERRIOXA	17:10 2. aretoa	Maruri Jatabe izozkien dastaketa URIBE	17:10 2. aretoa	Euskal pastela IPARRALDE
18:00 1. aretoa	Idiazabal lurraldeko sagardoak GOIERRI	18:00 1. aretoa	Cervus saltsak GORBEIALDEA	18:00 1. aretoa	Rafa Gorrotxategi Txokolate-dastaketa TOLOSALDEA
18:10 2. aretoa	Lusuri Gazta GORBEIALDE	18:10 2. aretoa	Erroiz/Oliba-olio dastaketa ARABAKO ERRIOXA	18:10 2. aretoa	Cervus saltsak GORBEIALDEA


Sukaldaritza-tailerak

osteguna 17		ostirala 18		larunbata 19	
12:15 - 13:00	Bilboko pintxoak	12:15 - 13:00	Tostada: hegaluzea + antxoa marinatua piperradarekin	12:15 - 13:00	Tostada Latxa gazta urdinarekin + Roastbeef tostada gazta zaharrarekin
13:15 - 14:00	Bilboko pintxoak	13:15 - 14:00	Tostada: hegaluzea + antxoa marinatua piperradarekin	13:15 - 14:00	Tostada Latxa gazta urdinarekin + Roastbeef tostada gazta zaharrarekin
17:15 - 18:00	Hegaluze Makia	17:15 - 18:00	Hegaluzez betetako pikillo piperra	17:15 - 18:00	Antxoaz betetako kalabazina
18:15 - 19:00	Hegaluze Makia	18:15 - 19:00	Hegaluzez betetako pikillo piperra	18:15 - 19:00	Antxoaz betetako kalabazina

16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

market



Benetako «basque» esentzia duten erosketak. **Areatza da Market** atalaren bihotza, eskualdeetako helmuga turistikoa erakargarriak esploratzeko eta **Txoko Gourmetek** eskaintzen dituen espezialitate gastronomikoez gozatzeko leku ezin hobea. Aparteko produktuen aukera zabala aurkituko duzu, jardunaldi bakoitzari amaiera bikaina emateko. Joan zaituz hiriko establezimenduetara eta hornidura-azoketara, Erriberako Merkatu historikora, adibidez.

Gainera, **Gure Lurreko Merkatua** ezagutzeko aukera izango duzu, gure lurraldeko gozamen guztiekin, baita **Artisautza Azoka** ere; bertan, eskuz egindako kalitate handiko hainbat pieza aurkituko dituzu, hala nola zeramikazko gauzak eta larruzko eta zurezko lanak. Eta edertasunik naturalena bilatzen dutenentzat, igandeko merkatuak **lore freskoen** aukera zabala eskaintzen du.





16-19  
apirila | april  
abril | avril  
2025

bilbao  
basque  
FEST

zinema



Lehen lerroko euskal zinema. **Bilbao basque FEST** jaialdiak Paul Urkijo zuzendariaren «Irati» film saritua programatu du aurten, **historiako euskarzko filmik arrakastatsuena**. Sitgeseko Zinemaldian izan duen arrakastak bermatuta, eta Goya sarietan bost izendapen lortu ondoren, fantasiako film luze hau egunero proiektatuko da **BBK Aretoan**, 18:00etatik aurrera.

**KOKAPENA:** BBK Aretoa



**DATAK ETA ORDUTEGIAK:** Apirilak 17 osteguna, 18 ostirala eta 19 larunbata, 18:00etan.

## “Irati”, Basque Zinema zikloaren protagonista



“Irati”, abentura, fantasia eta euskal mitologia uztartzen dituen **Paul Urkijoren lana**, ostegunetik larunbatera proiektatuko da BBK Aretoan, «**Basque Zinema**» programaren baitan. **Sitgeseko Jaialdian saritua** izan den (Publikoaren saria eta Efektu Berezi Onenen saria) eta **Goya sarietarako bost izendapen** lortu dituen film hau (16 urtetik gorakoentzat) VIII. mendean dago girotuta eta Eneko du protagonista, haraneko liderra izan nahi duen Pirinioetako kristau gazte bat.

Karlomagoren armadak inguru hori zeharkatzen duenean, haraneko liderrak laguntza eskatzen dio Mari jainkosari, bere herria babes dezan, eta hark Orreagako batailan etsaia garaitzea lortzen du, bere bizitzaren truke. Baina, hil aurretik, aro berrian bere herria defenda eta gidatu dezala eskatzen dio bere seme Enekorri. Urte batzuk geroago, Enekok bere promesari ekiten dio, misio batekin: bere aitaren gorpua berreskuratzea, Karlomagoren altxorraren ondoan modu paganoan lurperatua. Bere helburua lortzeko, Irati pagano misteriotsuaren laguntza beharko du.



\*Aire zabalean egiten ez diren jarduerak plaza mugatuak dituzte, edukiera bete arte.

16

asteazkena

19:00 - 20:30	<p><b>AZKUNA ZENTROA</b> <b>Tradizioa eta fusioa</b></p> <p>Jaialdiaren aurkezpen-ekitaldia Kontzertua <b>“Sensei Music Ensemble”</b></p>
22:00 - 00:00	<p><b>KAFE ANTZOKIA</b> <b>Basque Fest Rock City</b></p> <p>Kontzertua <b>Arnau &amp; The Honky Tonk Losers</b> <b>Moonshine Wagon</b></p>

\*Aire zabalean egiten ez diren jarduerak plaza mugatuak dituzte, edukiera bete arte.

**17**

osteguna

<p>11:30 - 14:30 16:30 - 20:00</p>	<p><b>ARENAL</b> <b>Gourmet Txokoa</b></p> <p>Dastaketa eta tailer gastronomikoak. (Edukiera mugatua)</p> <p>Euskal Photocall</p>
<p>JARDUERAK 11:30</p> <p>ERAKUSTALDIA ETA LEHIAKETAK 12:30-13:30</p>	<p><b>AREATZAKO KAIA</b> <b>Herri Kirolak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Gizonezkoen eta emakumezkoen Bizkaiko txapelketa ofiziala:</b> orga-jokoa</li> <li>• <b>Erakustaldia:</b> harri-jasotzaileak</li> </ul>
<p>11:30 12:30 13:30 16:30 17:30 18:30</p>	<p><b>ITSASADARRA (Bilboats)</b></p> <p>“Bilbao Basque Fest Awards 2025”</p> <p><b>Itsasadarreko pasealdi antzeztuak Mirentxu eta Maita- nerekin</b></p> <p>30 minutuko pasealdiak. 12 urtetik gorakoentzako edu- kia. Ibilbidea: Pio Baroja pantalanetik Carola garabiraino, ziaboga eta buelta abiapuntura.</p> <p>Tiketak <a href="http://www.bilboats.com">www.bilboats.com</a> webgunean. 3€</p> <p>“Tiketak webgunean jarriko dira salgai, ibilbidea egin aurreko egunean, 00:00etan”</p> <p>(Edukiera mugatua)</p>
<p>12:00 - 13:00</p>	<p><b>BERREGINEN MUSEOA</b></p> <p>Kontzertu poetikoa <b>Amaia Barrena eta Txitxo</b></p>
<p>12:00 - 12:45 13:00 - 13:45 17:00 - 17:45</p>	<p><b>ESPERANTZAKO FRONTOIA</b> <b>Euskal pilota tailerra</b></p> <p>Tailerra, museo txikia eta erakustaldia (Edukiera mugatua)</p>

17

osteguna

12:00 - 14:00	<p><b>ZAZPIKALEAK - AREATZA</b></p> <p>Bilboko historiari buruzko ibilbide antzeztua  <b>“Anfitrioiak”, Hortzmuga Teatroa.</b></p> <p>San Anton eliza (irteera), Konsuletxeko plaza, Erriberako merkata, Erriberako zubiaren sarrera, Arategizar kalea, Arana jauregia, Done Jakue katedrala, Dorre kalea, Posta kalea, Plaza Barria, Areatzako kaia, Zingira kalea, Areatzako kaia, Arriaga Antzokiaren aurrealdea, Posta kalea, Bidebarrieta kalea, Txakur kalea, Andra Maria kalea, “La Bolsa” eraikina eta “Triangu”.</p>
12:00 - 15:00	<p><b>KAIA ON SET</b>  <b>MEDIKOPA</b>  <b>DJ saioak</b></p>
<p>JARDUERAK  <b>16:30</b></p> <p>ERAKUSTALDIAK  ETA LEHIAKETAK  <b>17:30-18:30</b></p>	<p><b>AREATZAKO KAIA</b>  <b>Herri Kirolak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aizkora:</b> ebaketa 5 metroko altueratik + desafioa lurrean</li> <li>• Barrenatzaileen <b>desafioa</b>, taldeka</li> </ul> <p>Publikoak barrena probatu eta esperientzia partekatu ahal izango du aizkolariekin.</p>
18:00 - 19:00	<p><b>ZABALGUNEA</b>  <b>Familia-antzerkia</b>  <b>“Bualá” Txaloka</b></p>
18:00 - 20:00	<p><b>BBK ARETOA</b>  <b>Zinemak</b></p> <p><b>“Irati”</b> filmaren proiektzioa</p> <p>16 urtetik gorakoentzat gomendatua</p>

**17**

osteguna

18:30 - 19:30	<b>AZKUNA ZENTROA</b> Tradizioa eta fusioa Kontzertua “Dizdira” Bilbao Musika
19:00 - 20:30	<b>GAS PLAZA</b> Dantza plaza Lorraz
20:00 - 21:00	<b>BILBOROCK</b> Humor & Basque “Marica de Gernika” Mitxel Santamarina (Edukieta mugatua) 16 urtetik gorakoentzat gomendatua
20:30 - 22:00	<b>KIOSKOA</b> Kontzertua Korrontzi
22:00 - 00:00	<b>KAFE ANTZOKIA</b> Basque Fest Rock City Micky & The Buzz Solomillo Wellington

\*Aire zabalean egiten ez diren jarduerak plaza mugatuak dituzte, edukiera bete arte.

# 18

ostirala

<p>11:30 - 14:30 16:30 - 20:00</p>	<p><b>AREATZA</b> <b>Txoko Gourmet</b></p> <p>Dastaketa eta tailer gastronomikoak (Edukieta mugatua)</p> <p><b>Euskal Photocall</b></p>
<p>JARDUERAK 11:30</p> <p>ERAKUSTALDIA ETA LEHIAKETAK 12:30-13:30</p>	<p><b>AREATZAKO KAIA</b> <b>Herri Kirolak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Lehen mailako <b>aizkolarien desafioa</b>: lan luzea, ebaketa bertikalean, kolpeka eta abiadurakoa</li> <li><b>Iparraldeko jokoan desafioa</b>: lasto-altzatzea eta jaurtiketa</li> </ul>
<p>11:30 12:30 13:30 16:30 17:30 18:30</p>	<p><b>ITSASADARRA (Bilboats)</b></p> <p>“Bilbao Basque Fest Awards 2025”</p> <p><b>Itsasadarreko pasealdi antzeztuak Mirentxu eta Maitanerekin</b></p> <p>30 minutuko pasealdiak. 12 urtetik gorakoentzako edukia. Ibilbidea: Pio Baroja pantalanetik Carola garabiraino, ziaboga eta buelta abiapuntura.</p> <p>Tiketak <a href="http://www.bilboats.com">www.bilboats.com</a> webgunean. 3€</p> <p>“Tiketak webgunean jarriko dira salgai, ibilbidea egin aurreko egunean, 00:00etan”</p> <p>(Edukieta mugatua)</p>
<p>12:00 - 12:45 13:00 - 13:45 17:00 - 17:45</p>	<p><b>ESPERANTZAKO FRONTIOIA</b> <b>Euskal pilota tailerra</b></p> <p>Tailerra, museo txikia eta erakustaldia (Edukieta mugatua)</p>

**18**

ostirala

<p><b>12:00 - 14:00</b></p>	<p><b>ZAZPIKALEAK - AREATZA</b></p> <p>Bilboko historiari buruzko ibilbide antzeztua <b>“Anfitrioiak”, Hortzmuga Teatroa.</b></p> <p>San Anton eliza (irteera), Konsuletxeko plaza, Erriberako merkata, Erriberako zubiaren sarrera, Arategizar kalea, Arana jauregia, Done Jakue katedrala, Dorre kalea, Posta kalea, Plaza Barria, Areatzako kaia, Zingira kalea, Areatzako kaia, Arriaga Antzokiaren aurrealdea, Posta kalea, Bidebarrieta kalea, Txakur kalea, Andra Maria kalea, “La Bolsa” eraikina eta “Triangu”.</p>
<p><b>12:00 - 15:00</b></p>	<p><b>KAIA ON SET</b> <b>Martzana, 16</b> <b>DJ saioa</b> Estrella Electrónica</p>
<p><b>JARDUERAK</b> <b>16:30</b></p> <p><b>ERAKUSTALDIAK</b> <b>ETA LEHIAKETAK</b> <b>17:30-18:30</b></p>	<p><b>AREATZAKO KAIA</b> <b>Herri Kirolak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Trontza-desafio mistoa</b> (2 bikote)</li> <li>• <b>Goma gaineko sokatira:</b> sokatira-erakustaldia munduko txapeldunen eskutik (3 bikote)</li> <li>• <b>Sokatira-desafioa</b> publikoaren eta tiratzaileen artean</li> </ul> <p>Publikoak trontza probatzeko eta ebaketa etxera eramateko aukera paregabea.</p>
<p><b>18:00 - 19:00</b></p>	<p><b>ZABALGUNEA</b> <b>Familia-antzerkia</b></p> <p><b>“Historias de un baúl”</b> Trotamundos konpainia</p>
<p><b>18:00 - 20:00</b></p>	<p><b>BBK ARETOA</b> <b>Zinemak</b></p> <p><b>“Irati”</b> filmaren proiektzioa</p> <p>16 urtetik gorakoentzat gomendatua</p>
<p><b>18:00 - 21:00</b></p>	<p><b>KAIA ON SET</b> <b>MEDIKOPA</b> <b>DJ saioak</b></p>

**18**

ostirala

19:00 - 20:30	<p><b>GAS PLAZA</b> Dantza plaza Gaztedi</p>
19:00 - 20:30	<p><b>AZKUNA ZENTROA</b> Tradizioa eta fusioa Kontzertua Iñaki Plaza</p>
19:00 - 20:00	<p><b>DANDO LA BRASA</b> Kontzertua Los Castos</p>
20:00 - 21:00	<p><b>BILBOROCK</b> Humor &amp; Basque "Yo y mis circunstancias" Gurutze Beitia. (Edukieta mugatua) 16 urtetik gorakoentzat gomendatua</p>
20:00 - 21:00	<p><b>PESO NETO</b> Kontzertua Los Castos</p>
20:30 - 22:00	<p><b>AREATZAKO KIOSKOA</b> "Koklea" OrekaTX</p>
21:00 - 22:00	<p><b>AZKENA BILBAO</b> Basque Rock Kontzertua ON Taldea</p>
22:00 - 00:00	<p><b>KAFE ANTZOKIA</b> Basque Fest Rock City Kontzertua The Inciters The Cherry Boppers</p>



\*Aire zabalean egiten ez diren jarduerak plaza mugatuak dituzte, edukiera bete arte.

# 19

larunbata

<p>11:30 - 14:30 16:30 - 20:00</p>	<p><b>AREATZA</b> <b>Gourmet Txokoa</b></p> <p>Dastaketa eta tailer gastronomikoak. (Edukieta mugatua)</p> <p><b>Euskal Photocall</b></p>
<p>JARDUERAK 11:30</p> <p>ERAKUSTALDIAK ETA LEHIAKETAK 12:30-13:30</p>	<p><b>AREATZAKO KAIA</b> <b>Herri Kirolak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Crossfit eta herri-kirolen arteko desafioa:</b> crossfit eta herri-kirolen diziplinak, talde mistoetan</li> </ul>
<p>11:30 12:30 13:30 16:30 17:30 18:30</p>	<p><b>ITSASADARRA (Bilboats)</b></p> <p>“Bilbao Basque Fest Awards 2025”</p> <p><b>Itsasadarreko pasealdi antzeztuak Mirentxu eta Maita- nerekin</b></p> <p>30 minutuko pasealdiak. 12 urtetik gorakoentzako edu- kia. Ibilbidea: Pio Baroja pantalanetik Carola garabiraino, ziaboga eta buelta abiapuntura.</p> <p>Tiketak <a href="http://www.bilboats.com">www.bilboats.com</a> webgunean. 3€</p> <p>“Tiketak webgunean jarriko dira salgai, ibilbidea egin aurreko egunean, 00:00etan” (Edukieta mugatua)</p>
<p>12:00 - 12:45 13:00 - 13:45 17:00 - 17:45</p>	<p><b>ESPERANTZAKO FRONTOIA</b> <b>Euskal pilota tailerra</b></p> <p>Tailerra, museo txikia eta erakustaldia (Edukieta mugatua)</p>

**19**

larunbata

<p><b>12:00 - 14:00</b></p>	<p><b>ZAZPIKALEAK - AREATZA</b></p> <p>Bilboko historiari buruzko ibilbide antzeztua <b>“Anfitrioiak”, Hortzmuga Teatroa.</b></p> <p>San Anton eliza (irteera), Konsuletxeko plaza, Erriberako merkata, Erriberako zubiaren sarrera, Arategizar kalea, Arana jauregia, Done Jakue katedrala, Dorre kalea, Posta kalea, Plaza Barria, Areatzako kaia, Zingira kalea, Areatzako kaia, Arriaga Antzokiaren aurrealdea, Posta kalea, Bidebarrieta kalea, Txakur kalea, Andra Maria kalea, “La Bolsa” eraikina eta “Triangu”.</p>
<p><b>12:00 - 15:00</b></p>	<p><b>KAIA ON SET</b> <b>Martzana, 16</b> <b>DJ saioa</b> Mimoloco</p>
<p><b>13:00 - 15:00</b></p>	<p><b>DIPUTAZIOA ETA LEDESMA</b> <b>Kalejira</b> <b>Fanfarre Sama Siku</b></p>
<p><b>JARDUERAK</b> <b>16:30</b></p> <p><b>ERAKUSTALDIAK</b> <b>ETA LEHIAKETAK</b> <b>17:30-18:30</b></p>	<p><b>AREATZAKO KAIA</b> <b>Herri Kirolak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Pentatloi desafioa:</b> Bizkaiko kirolaririk onenak bost proba hauetan, konbinatuta eta erlojupean: harri-jasotzea, gizon-proba, aizkora, txinga-garraioa eta lasterketa</li> <li>• <b>Harri-jasotzaileen erakustaldia, harri handiekin</b></li> </ul>

19

larunbata

18:00 - 19:00	<b>ZABALGUNEA</b> <b>Familia-antzerkia</b> "Doble Bill" Two Much Circus
18:00 - 20:00	<b>BBK ARETOA</b> <b>Zinemak</b> "Irati" filmaren proiektzioa 16 urtetik gorakoentzat gomendatua
19:00 - 20:30	<b>GAS PLAZA</b> <b>Dantza plaza</b> Goi-herri
19:00 - 20:30	<b>AZKUNA ZENTROA</b> <b>Tradizioa eta fusioa</b> Kontzertua Iñaki Palacios
19:00 - 20:00	<b>DANDO LA BRASA</b> Kontzertua Duo Carlos Carranza
20:00 - 21:00	<b>BILBOROCK</b> <b>Humor &amp; Basque</b> "Una nueva perspectiva" El Morologuista. (Edukieta mugatua) 16 urtetik gorakoentzat gomendatua

19

larunbata

20:00 - 21:00	<b>PESO NETO</b> Kontzertua <b>Duo Carlos Carranza</b>
20:30 - 22:00	<b>AREATZAKO KIOSKOA</b> Kontzertua <b>Oreika</b>
20:30 - 21:30	<b>JAZZON ARETOA</b> <b>Itxaso &amp; Luismi</b> Sarrera 5€
21:00 - 22:00	<b>AZKENA BILBAO</b> <b>Basque Rock</b> <b>Clara Corral</b>
22:00 - 00:00	<b>KAFE ANTZOKIA</b> <b>Basque Fest Rock City</b> Kontzertua <b>Nat Simons</b> <b>Las Furias</b>

**bilbao**   
**basque**  
**FEST**

[www.bilbao.eus/basquefest](http://www.bilbao.eus/basquefest)

